

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Oliver bere lanbidean finkatu ahala, Noah Claypolek gero eta tratu txarragoa ematen zion, bekaizkeriaz erreta zegoen eta. Charlottek ere gaizki esaten zion, Noahri poz ematearren. Sowerberry andrea mutikoaren arerio argi eta garbia zen, Sowerberry jaunak begi onez ikusten zuela eta. Horrela, Oliverren bizitzan garrantzi handia izango zuen pasadizo batera iritsiko gara.

Behin, Oliver eta Noah sukaldera jaitsi ziren bazkaltzeko orduan, eta handikoteak ez zuen jolasteko modu hoberik aurkitu mutikoari amorrua eta atsekabea ematea baino. Horrela, ileetatik tiraka eta belarriak tolesten hasi zitzaion; baina, hark negar egiten ez zuenez, barru-barruan mintzea erabaki zuen:

—Umezurtza halakoa –esan zuen Noahk—. Nondik ote dabil zure ama?

—Hilda dago –erantzun zuen Oliverrek—. Eta kontuz nire amaz zer diozun gero!

—Kontuz ibiltzeko diostazu? Zure ama ziztrin hutsa zela jakin behar duzu, eta ondo egin zuen hiltzeaz. Bestela, espetxean egongo litzateke, erbesteratu egingo zuten, edo urkatu, seguruenik.

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Gustatzen al zaizkizu margolanak, laztana? –galdetu zion emakumeak.

—Ez dakit zer esan, andrea –erantzun zuen Oliverrek, begiak oihaletik kendu gabe—. Hain gutxi ikusi ditudanez, ez dakit. Zer aurpegi polita eta gozoa duen emakume horrek!

Bizirik dagoela –eta hitz egin nahi didala ematen du. Dardarazi egiten dit bihotza. Nor da bera?

—Ez dakit; ez dut uste ezagutzen dugunik –erantzun zuen andre zaharrak—. Gustatzen zaizu, ezta?

Kolpeak entzun ziren atean, eta Brownlow jauna sartu zen. Oliverrek altxatzeko ahalegina egin zuen, gizon hari eskerrak emateko; baina ezin izan zuen.

—Nola zaude, mutiko?

—Oso pozik, jauna, eta neure esker ona erakutsi nahi dizut. Nire izena Oliver Twist da, jauna.

—Ene Jainkoa! Zer da hau baina? –oihu egin zuen, bat-batean, Brownlow jaunak—. Bedwin andrea, begiratu horri! –esan zuen, hormako margolanari begira; erretratuko andrearen eta Oliverren aurpegiari txandaka begiratzen ari zen, txundituta. Begiak, ahoa, aurpegiera... , berdin-berdina zuten guztia eta!

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Gaizki hezita zaude *–esaten zion Kaletxakur-ek–*, baina Faginek gizon egingo zaitu; bestela, zeu izango zara haren lehenengo hutsegitea. Beraz, hobe izango duzu kaskarrean hau sartzea: zapiak edo erlojuak lapurtzen ez badituzu, zuretzat txarrago; beste batek egingo du zure orde, eta zeuk galduko duzu horren irabazia.

—Egia da *–esan zuen juduak–*. Egiozu kasu *Kaletxakur-i*, ondo daki gure lanaren ikasbidea eta.

Hitz horien ostean, berriro egin zuten oinezkoaren lapurretaren jolasa.

Handik egun gutxira, gau hotz, heze eta haizetsu batean, judua ezkutalekutik atera zen, Bill Sikes ikustera joateko; plan berezi baten xehetasunak osatu nahi zituen harekin: etxe bat hustu behar zuten Londrestik hurbil zegoen Chertsey herrian. Faginen taldeko mutiletako batek, Toby Crackitek, egunak zeramatzan, alfer-alferrik, etxe handi hartako zerbitzariak erosi nahian. Baina hartuta zuten etxean sartzeko erabakia, barruko gauzak balio handikoak ziren eta.

—Egingo dugu *–esan zuen Sikesek–*. Nik dakidan toki batetik arrisku eta zaratarik egin gabe sar gaitezke; baina mutiko bat behar dut, eta mutiko txikia.

—Aizu, Fagin *–esan zuen Nancyk barreka–*, esaiozu Billi hor duzula Oliver.

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Toby, emadazu zapia –esan zuen Sikese*k*–; bizkor, eman egin diote eta. Odoletan dago!

Kanpaia, armak eta ahotsak entzun zituen Oliverrek. Zuloz betetako tokiren batetik zerratela konturatu zen, eta, gero, bihotzeraino igo zitzaion hotz hilgarria sentitu zuen. Ez zuen besterik ikusi ez entzun. Lapurrak landan zehar zihoazen korrika, eta lubaki batean ezkutatu ziren. Ez zen gauza handirik ikusten, lainopean eta ilunetan zeuden eta; baina atzetik jarraitzen zieten gizonen ahotsak eta txakurren zaunkak entzuten ziren.

—Bukatu da, Billy –esan zuen Toby*k*–; utzi mutikoa hor, eta eragin hankei. Sikese*k* lurrean etzanda utzi zuen haurra; kapa jarri zion gainean, eta korrika joan zen handik.

—Hobe etxera itzultzen bagara –esan zuen atzetik zetozen gizonetako lodienak, eta horixe egin zuten, besteen atzetik joateaz nekatuta.

Euria ari zen oraindik, baina Oliverrek ez zuen sentitzen: lokatzetan etzanda zegoen, konorterik gabe.

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu*ri* egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen*io* bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde*a* zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Orain –esan zuen–, entzun dezagun zure kontakizuna.

Eta besoak mahai gainean jarrita, aurpegiak hurbildu zituzten.

—Sally zaharra hil zenean –hasi zen Bumble andrea–, bera eta biok bakarrik geunden. Sallyk esan zidanez, emakume gazte batek haurra eduki zuen behin, ohe hartan bertan; zuk bart honi aipatu zenion .haurra, hain zuzen ere –esan zuen senarra ardurarik gabe seinalatuz–. Hilzorian zegoela, haurarentzat gauza bat gordetzeko eskatu zion Sallyri; baina Sallyk lapurtu egin zuen.

—Zer gauza izan zen? –oihu egin zuen Monksek, egon ezinik–. Saldu egin al zuen? Nori saldu zion?

—Gero eta arazo handiagoak zituen hitz egiteko –jarraitu zuen Bumble andreak–, eta, halako batean, atzerantz erori eta hil egin zen.

—Besterik esan gabe? –oihu egin zuen Monksek, suminduta–. Gezurra! Ez didazue ziria sartuko. Beste zerbait ere esango zuen, eta jakingo dut zer izan zen, bioi larrua atera behar badizuet ere.

—Baina –esan zuen emakumeak, zirkinik egin gabe, galdetzailearen oldarkortasuna gero eta handiagoa izan arren (Bumble jauna, aldiz, dardarka zegoen)– gogor heldu zidan esku batekin jantzitik; eskua zabaldu nionean, paper zati zikin bat zuela konturatu nintzen.

—Eta paper hartan... –moztu zion Monksek, eta gehiago hurbildu zen.

—Ezer ere ez; bahitetxean utzitako bitxi baten txartela baino ez zen. Bi eguneko peea zegoenez, berreskuratu egin nuen bitxia.

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Garaipen-irribarrea agertu zen Monksen ezpainetan.

—Zoriarena baino indartsuagoa den esku batek nire bidean jarri zuen zure anaia, eta txundituta gelditu nintzen, erretratuarekin zuen antz handia ikusita. Baina ondo dakizu zuk bahitu egin zutela, nik haren iragana aztertzeko astirik izan baino lehen.

—Ezin dezakezu nire kontra ezer frogatu –esan zuen Monksek, totelka.

—Ikusiko dugu –erantzun zuen Brownlow jaunak–.

Galdu egin nuen mutikoa, eta, zure ama hilda zegoenez, banekien zeu bakarrik zinela sekretua argitzeko gauza. Baina Antilletara joanda zeunden, zure grina gaiztoen ondorioetatik ihes egin nahirik, eta, beraz, bertara joan nintzen. Hala ere, heldu nintzenerako, Londresera itzuli zinen. Gau eta egun ibili nintzen alferrik zure bila, eta, azkenean, duela bi ordu aurkitu zaitut.

—Eta, orain, zer? –esan zuen Monksek–. Anaia diozu! Bikote hartatik haurrik jai^o zen ere ez dakizu eta!

—Orain arte, ez nekien –erantzun zuen Brownlow jaunak–; baina azken egunotan den-dena jakin dut. Anaia duzu, bai, eta badakizu nor den. Zure amak apurtu egin zuen aitaren testamentua, haur hura jaioko zela adierazten zuen eta. Baina zuk aurkitu egin zenuen haurra, ezustean, eta, aitarekin halako antz handia zuela ikusita, susmatzen hasi zinen. Jai^o zen tokira joan, frogak aurkitu eta suntsitu egin zenituen. Baina hormako itzalek entzun egin zuten juduari esan zeniona, eta, horrela, nire belarrietara iritsi zen guztia. Sekretu hori kontatu izanak hilketa izugarria eragin du, eta zu delitu horren gaizkidea zara.

IL AZALPEN PROBA • <i>Oliver Twist</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Agure zaharra naiz, jauna..., agure zaharra baino ez..., agure zahar hutsa!

Han bukatzen zen dena. Hil arte esekiko zuten. Zigor-gelarako bidean, urkamendian hil ziren ezagun guztiak gogoratzen hasi zen; batzuk beraren eraginez hil ziren, gainera. Zigor-gela oso ilun zegoen. Ehunka gizonek eman zituzten azken orduak toki hartan. Gorpuz betetako panteoian eserita balego bezala ikusten zuen bere burua.

—Zenbait galdera egin nahi dizkizute, Fagin –esan zion zaintzaileak, eta, Oliver eta Brownlow jauna ikusita, bazterrik urrunenera atzeratu zen Fagin, izuaren izuz.

—Monks izeneko gizon batek –esan zuen Brownlow jaunak, hurbilduz– paper batzuk eman zizkizun behin, zuk toki seguruan gordetzeko.

—Gezur hutsa da hori –erantzun zuen Faginek–. Nik ez daukat inoren paperik.

—Jainkoarren –esan zuen zaldunak, hotsandiz–, ez ezazu horrelakorik esan heriotzaren aurre-aurrean, eta esadazu paperok non dauden. Badakizu Sikes hilda dagoela, Monksek dena aitortu duela eta barkamena lortzeko itxaropenik ez duzula.

—Non daude paper horiek?